

SARRERA

AURKEZPEN OROKORRA

Aurre-oharra: euskara gure ezaugarri nabarmenena izan arren eta lan honen gogo-tresna, ez zaigu ahaztu behar, Euskaldunok geure gisako pirineotar zibilizazioa sortu dugula eta Euskal Herriaren Jakintzan, **Sendagintza ta Herri-sendakuntza** osagai garrantzitsuak direla.

I. Egitasmo ta xede

Lan hau - R.M. Azkue, I. Barriola A. Erkoreka ta beste ikerlariek irekitako sailean ta erakutsitako bidean sartzen da: Iparraldean gutxi ikertu ta aipatutako gaia, XX. mendean, Zuberoan batera erabilia. Hortarako bermatu naiz ikerketa hontara, baita erdi-galtzen eta - medikuntza ezti - izenpean erdi-berritzen diren jakituriak ez baitira zuberotarren gogotik erabat ezabatu, haien praktikan, oraindik, batzu bizi direlako.

Nire arazoketaren, nere zuduaren hirur ardatzak hauexek izango dira:

1. Zenbateraino bizirik eta baliaturik den Zuberoan herri-sendakuntza?
2. Beregisakoa, berezia ote den ta zenbateraino jakituri sail hori?
3. Herri-sendakuntza horrek zer balio, zer balorapen daukan, gaurko Jakintzaren begietan?

Horiek dira lan honen jakingarritasunak, honekin erantzun abioa ematen badut, hirur galdera honei, baina badago besterik.

Duela hogeitamazortzi urte Jose Miel Barandiaran-ek *Etno-ikuska* sailean eta *Eusko-Jakintza* aldizkarian eman zizkigun Azti-medikuntzaz Zuberoan bere bilketak, artikulua zerrenda bat idatziz "Materiales para un estudio del pueblo vasco, en Liginaga"; beraz, ez naiz gehiegi bide hortatik ibiliko eta sendagintza "enpirikoaz" jardungo dut Zuberoan *azti-keriak deitzen dituzten jakituriak bazter utzi gabe* : Azti-jakituri horiek bazter utzi baino lehen eta duela hamazazpi urte Anatomiazko Euskal Hiztegia tesia abiatu nuelarik ohar egin nuen bezala, galdeketetan sineste bat edo beste agertu daiteke, eta hori ez dugu baztertuko. Orain arte, lan hontarako egin ditugun aurre-ikerketek, eta aspaldian gai horren ingurutik gabiltzalako, badakigu berri-emateen gogoan badakite-lare bereizten, sinestearen mugan dagoena ta erremedio, sendagailu, erabilka (teknika) mailekoa dena.

Badakit azti-jakituri ez denari sendagintza "enpirikoa" esateko ohitura dagoela, baina hitz orokorragoa erabiliko dut herri-sendakuntza, zeren ez baitakit hain enpirikoa denez herrian biltzen den jakituri. Susmoa badut, eta Zuberoan probak badaude idatzitako jakintza eta erdi-jakintzako liburuak baserrietan bazeudela, eta herriak bazekiela, bere aintziñako barberu, sendagile, atxeter jakintsunen argitasunak entzuten, erabillak ikusten, eta aholkuak, batzutan, onartzen. Bitxi da nola Strabon-ek dion pirineotarrez mintzo, nola bide ertzetan aurkitzen ziren jendeak beren gaitza nolako

zen eta nola sendatu zitezken eskatzen zutenak. Enpirismua hor liteke aho-mihizko irakaste eta lekuan lekuko egokitzen hortan. Azal sendatzaileen kasuan aztikeriaren mugan ibiliko naiz, haien eragina psikoterapiazkoa dela baitakigu baina sendagintza ofizialean ez al dago holakorik? Beraz zergatik erdi-hilik diruditen jakituriak bildu, ezagutarazi, Etnologia jakin minaz kanpo?

1. Oraindik, erabiltzen baita herri sendaketa.
2. Sendaketa zahar horien antzekoak berriro agertzen direlako.
3. Zuberoan, "Medikuntza ezti"aren praktikan sartuak diren *batzu*, herri-sendagintzatik bait-datoz, nahiz ikasiak izan, aitarekin edo amarekin aintziñako herri-sendakuntza edoski dutelako.
4. Nahiz baserriarren artean galtzen diren praktika horiek, eskulangile, enplegatu, erdi-klaseko ta goimailako jendeen artean jakin mina badago horretarako, eta erabilera berriaren zikloan, baserriarren lekua hartzen baitute.

Egia esan, gauza hil eta erdi-hil baten aurrean gertatzen ez delarik etnologilari bat bihotz berogarriago zaio, hil kanpaiak jotzea baino. Agian, soziologo, psikologo, patologo, fisiologo ta beste logoek beren atzaparrak zorrozteko egurra aurkituko dute, gure herri-sendagintza bilduma hori ikertuz. Hala balitz hobea!

2. Euskal Jakintzen beregisakotasunak ta jakituri mailleguak.

Askotan, bitxikeriazaleek Euskal Herria basa-leku bazter-tua bezala erakusten digute, agian, gaurko komunika bideek, beren ugaritasunean, eta oparoegi baitira albisteak, bitxikeriak bilatzen baitituzte, benetako jakituri jakingarriei kasu egiteko ordez.

Gure hizkuntza berezia, bakartia, gorde dugulako, Europako amerindiarren moduan ikusten gaituzte. Gertaeren eta zibilizazioen azala erakusten dabilzan berriketari xumeen jokabidea baizik ez balitz, baina unibertsitarien lumapean ez da urterik igarotzen, mundu hitxia, kanpoarekin harremanik gabekoak garela, hots, gure euskal-ghettotik irten behar dugula: naski jarrera horrek ez du jakintzarekin ezer ikustekorik. Goiti beherako ikuspegi horiek daramate gure auzo hurbilak pentsatzera, basa-jakintza, sasi-jakituri ta ideia atzeratuen gordelekua Euskal Herria dela, bai bitxikeria horiek gaitzesten dituztenek; halaxe gertatzen da, gaitzesleak eta miresleak bat eginik.

Frantzian, ordea, oraindik bitxikeria zaletasuna badago, erromantizismuz kutsutua eta zoritxarrez frantses erdararen Euskal Herriari buruz argitaratzen diren liburu asko "publiko haundiarentzat" *euskal misterioaren* asmakeriez beteak daude. Ondotik "bascomania" horren frutu diren liburuen izenburuak emango ditut: *Le Mystère basque*, L. Charpentier; *Essai sur l'Origine des Basques*, J. Karst Unibertsitariak (?); *Le*

mystère basque dévoilé, P. Arnold. Nere ikerlanean ez **dut astirik galduko** horien jorratzen baina aitortu behar dut, gure gisakotasuna (orijinaltasuna) hobeki kokatzen, zehazten eta finkatzen, ustegabeen lagundu nautela.

Benetako berezitasunak dauzkagula - Europar kultura baten barrutian - ezin uka, baina maiz euskaldun ikerlariei zaigu gertatu kanpotarrei gogoratzea ez garela "mendi zoko batean bizi", baina itsasertzean ere, ez garela baztertuak, baina **bidekurutze** batean gaudela jarriki: ez Santiagobide ginenean baizik, baina lehenagotik eta gerotik. Horixe dio **geografiak, kondairak, ekonomiak**, eta etnologilari gisa zerbait ikasten ibilia naiz, J.M. Barandiaran, J.C. Baroja, Th. Lefevre, E. Goyheneche, B. Otaegi, J. Altuna, J.M. Satrustegi, ta P. Zabaleta, ikerlarien gandik, euskaldun direlako, erdaldun goresle ta gaitzesleen beste biderik baitzeukaten.

Europa guztiko jakitateak gure herriratu direla sumatzen badugu, aspaldidanik - ez bakarrik eskolatuen giro zerratuan - asmo berriak, asmaketak, berrikuntzak herriz-herriz kurrizten zirela badakigu. Jakituri berri sortzaileen atzetik ibiltzen astirik galdu gabe, hauzitan ipiñi behar duguna da, **herri-jakintza/eskola-jakintza** delakoen arteko harremanak, elkaremateak, elkar ukatzeak.

Hain zuzen jagoiti bilduak ditudan idazkien artean, argi dago **kultura arartekoak** izan ditugula, abere-sendagintzan teknikoak ("kimistak", "albaiteruak" "herri-marexalak") jende sendagintzan "petrikilloak" "jinko txipiak" "danatuak" eta abadeak; nola nahi ere, apezpei behin ta berriro aintziñako gotzainek (apezpikuek) sendagintzan ibiltzea debekatzen zieten - alferretan - XIX. XX. mendean eliza-gizonek, bakean herri-sendagintzan ihardungo dute. Bai, geu ere joku hortan sartzen gara: askotan geure nortasuna nabarmendu beharrez, batzutan ez jakinean: hala, bereziak ez diren ohitura, bizi molde, gogo-bideak goraitatuz - geuk benetan ekarri duguna ikusi gabe - gure benetako baloreez konturatu barik. Nere ikerlanen esnaurketek eroan naute, gure historia gure etnologia, eta gure hizkuntzari buruzko mitoen kritikatzera.

Ernaroa Bilbao, 1986, 2.en zenbakian "Aita Larramendi euskal abertzaletasunaren kristalgintza bat", Deustu Unib.

Bulletin du Musée Basque, Baiona, 1980. Cesar Duvoisin-en "Traité des mœurs des Basques" Kritika ikerketa.

"Méthodologie de la notation des textes basques", *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea, 1981, 37. zbk.

"Urdaitx-etik Santa Graziraino berzokoratu herria", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*.

Nire aintziñako ikerbideak apur bar orraztuta, ez dut uste, halare, gure euskal mundu sasidun honetan ez naizela non-bait zorri batetan tratatuko. Egia da, gure ezaugarrien artean - hizkuntza bazter utzita - **Herri-jakintza** badagoela edo behintzat, **herrian aurkitzen eta biltzen diren jakituri nasaia**k, oparotasun hortan ez baita sekulan ere erraza izango nondik datozen baiestea: egin ditudan biologia ta etnologiazko ikasketak ez zaizkit behin ere gehiegi izango gure zokotasunaren sasi-egiak, ikertzeko ta orrazteko, baina ondokoei ere utzi behar dizkiegu, geuk bildutako jakituri ez hitzegiteko, aztertze ahalmenak, baldin egun batean argitaratzen badira.

3. Herri-sendakuntzaren erabilgarritasunaz

Aurretik aipatu ditudan guregisakotasunaren ezaugarriak zein izango lirakeen bilatzeak, beste alor batera garamatzi. Lehenik esan beharke zaigu - zehaztasun ta xehetasun gabe - geuk, euskaldunok osasunbide, sendabide sailetan zer asmatu dugun, sekulan ez dugula erraz jakingo, ustegabe aurrakuntzak egin arte, baina bost axola zaigu, nazio-kerien eztabaidetan sartu nahi ez garelako.

Zertan bilatu behar dugun sendokiago gure berezitasuna: **jakituri orokor batean, gure izateari, gure bizimoldeari, gure ingurumenari, Izadiari egoki zaizkigun jakiturien moldatzean**, hola zehatzenez erabilgarritasun bat. Adibidez gure mendi, ibarretan eta ez dendetan aurkitzen ditugun belarrak edo erostekotan erabiltzen jakingo ez ditugunak, euskarazko idazkietan irakur genetzazke, holako bat aurkitu dugu, harri-preziosen erabileraz medikuntzan (ik. "Alberto Magno euskaraz", in *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 1974) (Izenburuaren fotokopia). Bai nola erabili lezake herrian, Zuberoan, norbaitek "goiharririk" (harri preziosik), bai, diamante, jazinto, esmeralda, safiro, karbundo, bezoar, pantaura ta beste, jakinik ere faltsuak merkeago direla.

Erabilgarritasunari muga bat ipintzen diona da, ere, moda: garai batean belarrena galdu egin zen, berriro dator, berdin desagertu zaizkigu, erabat landare nahasketa zaharrak: Elektuariu, Teriaka, Orbietan eta Konstantinopolitana, drogaki ospetsuak. Erabiltzeari oztopo egiten duena gaur da, diru izatea ta segurantzaren laguntzaz sendagailu guztiak dohan direla sinesteak.

4. Lan honi eman nahi diodan garrantzia ta balorapena

1.ik Zuberoan bizi naizelako, nere itaunketan eremu hortara mugatuko naiz, gehien bat, eskualde hortan lan egin eta egiten dutenekin ibiliko.

2.ik Zuberera hitzegiten, irakurtzen, idazten dakidalako eta berriemaileen hizkuntza delarik euskalki hortan egingo dizkiet itaunak.

Bestalde euskalki hortan ez dira sendakuntza arloko idazkiak falta, nahiz gehienak argitara bageak.

3.ik Ahalik eta osoenik, **sinkronian** osasunbide ta sendabide eztiak, erabilka zaharrak bilduko ditut eta jakintzaren aldetikako baloreaz arduratuko naiz.

4.ik Jakintza hori, gazte garaian Zuberoan biziago ikusi badut ere ta etxean, Parisen ere, gurasoek aplikatu badidate, *ez da oraindik hilik*, eta gure eskualdean zorionez ez da etenik izan, gaur sendagintza ezta erakasten dutenak, beren jakituri zati bat, etxean ikasi herri-sendakuntzatik baitator, ba, gero betiko legez, kanpotik bestea.

5.ik Herri mailan *zer galdu den* ikusi beharke zait, zeren sendakuntza eztko taldetxo berrietan nekazari gutxi baita agertzen?

6.ik Herri-jakintza horrek, gutxienik, bi adar ditu biak ikertuko ditudanak, **etxeko-sendagintza** gehienbat, etxekandereek ezagutzen dutena, ta "jinko txipien" **herri-sendagintza** (ezur zuzenketa, larrumin sendaketa, belarren erabilera).

7.ik Zuberoan lekukotasun zaharrak dauden ezker, *diakronian* lan zerbait egitea gogoko nuen, testu

ezagun ta ez-ezagunekin: Atsotitzekin XVI.menderaino iritxiko gara, albaite lanekin XVII-XVIII.menderaino eta sendakuntzazko lau testu emango ditugu XIX.mendekoak. Gero lekukotasun ugari ta jakin-garriena, Züberoako antzertian dago: astolaster ta lhautiri-komerietan.

Ez dugu etsitzen beste lekukotasun gehiago aurkitzea idatzirik, edo pratikan. Aurkezpen hau bukatzen ari naizela Mintikile-n beste petrikillo bat dagoela esan didate, Undüraine-koa haina lanpetua. Halere, ikerlan hontatik kanpo utziko dut, Sorhuetako "sorgin" delakoa, telebisteen bizpahirur bisitek exhibizionismo eta gehiegikerietara eroan baitdute: nekez atera nezake, orain, zerbait onik beranduegi heldu naiz, hor.

8.ik Esan gabe doa, jakituri eta teknika horien biltzetik kanpo, jendeen (gaixoen), herri-sendagileen, sendagintza ofizialeren eritziak aintzakotzat hartuko dituda.

Azkenik, lan guztia garbitan ipiñi ondoren, bai gaztelaniazko, ingelesezko eta beharbada frantseseko erdal **laburpenak** idatziko ditut.

Euskal piktogramak

Pirineo erditan, garai batean euskaraz hitzegin den herrian, Mas d'Azil-en aurkitu ziren harriak, oraindik irakurtzen ez ditugun piktogramekin; neronek asmatu sinbolika batekin kapitulu guztien atal-orrialdean erabili ditut, edergarri eta adierazgarri izan ditezten.

IKERKETAREN URRATSAK

I. BILKETA "BIZIA" (Lehen eta bigarren liburukiak)

I. Oraingo sendagintzaz (Lehen bi tomoak)

I. a. Jendeak

Berri-emailegaiekin	(Ezaguerak egin) (Harremanetan sartu)
Nere buruarekin	(Herri-sendakuntza moldean bizitu)

I.b. Gaien aurre-sailkapena, eta galdeketen gertutzea

Hirur galdeketa mota	(etxe-sendakuntza (herri-sendakuntza (sendakuntza ofiziala
----------------------	--

Gaien sailkapena, galdeketen barruan

A. Osasuna (Osagarria)

- A.a. Osasun on aholkuak: janari, edari, bizimodu, barur, eguraldia, mendia, itsasoa.
- A.b. Osasun onaren erabilkak: Gimnasia, loa, lasaialdiak, kirola.
- A.c. Osasun ta gaixotasun ezaugarriak: fisiognomonía, konplexionek eta beste.

B. Gaitzak (eritarzünak) ik. itaunketa.

- Larru, kirio, buru, ezur, giharre
- Arnasbide, odolbide, janaribide.

C. Sendabide, sendagailu

C.a. Fisika itxurazko sendabide eztiak

- hidroterapia: larru, oinaze, urdail, gibel, gaitzak - (Z. huredade eta hurztatze)
- zaingiltz zapatzea (Z.): oiñazeentzat
- hezur eta giltz zuzentzeak: petrikilloa (Z. danatua)
- bero eta hotzaren erabilera.
- esku-sendaketa "magnetismua".

C.b. Kimiazko sendagailuak eta belarrezkoak

- Belarren izenak eta haien kimikagaiak.
- Beste kimikagaiak
 - etxeakoak
 - apotikarietak

C.c. Aztikeria eta piskoterapia

- bizkarrean garraiatzea: larru minak
- ezkoaren erabilera, otoitzak
- harri preziosen (goiharrien), eskapulario eta gutunen erabilera
- begizkoa

D. Ernalketa: andere izarra, erditzea, ninia.

II. Aintziñako sendakuntzaz

Ahalik eta lekukotasun (jakilegoa) gehien biltzen bermatu naiz, züberoerazkoekin, aski izan dudala uste dut. Pariseko Bibliothèque Nationale-an, Paueko ta Baionako artxiboetan lo dauden argitara gabeak, eman eta aztertu ditut, mendeka, ehunkika sailkatuak, baita argitaratu "erran zahar" delakoez baliatu.

II AZTERKETA

Corpus-a bildu ondoren eta horretarako, gehien bat euskal idazkiak kontutan harturik, analisisa egin dut eta hor P. Delancre, J.P. Thillaud-ren ikerlanez baliatu naiz, haien lanetatik hogeiren bat orrialde itzulia, konparaketa lan baten bidez euskal iturrien balore eta balioak egiaztatzeko.

Bilketaren zati bakoitzari bere azterketa egokitu eta erantsi diot, ohar erazkin guztiak batean ez metatzeko. Egitasmoa ez da agian hobereña izango baina holako lanetan eta biltzen nuen euskalkiaren beregisakotasunak hortartu nau, hizkuntza oharrekin ez itozteko. Gero züberoerazko testu guztiak, euskara batuan idatzitako "laburpen luzeaz" lagundurik datoz.

II.a. Oraingo ikerlarien eritziak, herri sendakuntzaren teknika bakoitzaz.

- Euskalduna belar eta kimigai erabilera herri-sendakuntzan (etxekanderena, gizonena, belarerabiltzaleena, hezur eta larru edo azal sendatzaile herrikoienak) eta oraingo farmakopeak zer bertute ezagutzen dieten holako ekaiei.
- Aintziñako eta oraingo osasunaz eritziak
- : herria/eskolatua/ikerlari**
- Aintzinako eta oraingo osasun erabilkak
- : nekazariak/eskulangileak/besteak**
- Jakintza ofizialak egiten eta egin dezakeen berreskuratzea, herri jakituria baliatuz.

II.b. Medikuntza jakituri horren aintziñatasuna

- sekulako galduta diruditen erabilka zaharrak
- garai batean galdu eta berpiztu egin diren teknikak.
- gutxi edo asko iraun duten teknikek.
- herri-sendakuntzaren europar iturriak.

II.c. Jakintza ofizialaz kanpoko erabilkak

- Aztikerien baztertzea/ta gordetzea.
- Medikuntza eztiaren garapen berria Zuberoan (zergatik, non, noiz, nor?)
- Ulertzen ez diren erabilka batzuen eraginkortasuna: psikoterapia, magnetismua.
- Sendaketa kasuen kondaira.

II.d. Unibertsitari- sendagintzaren sartzea ta garaipena

- Zuberoako hiritxoetan (Maule-Atarratze)
- Zuberoako baserrietan
 - Noiz?
 - Nola?
 - Norentzat?
- Gaurko sendagintza ofizialaz zer eritzi dauden?
- Sendagilearen edo Eritegien ukapena edota onarpena
 - Adinka
 - Herrika
 - Lanpideka
 - Erremedio ala ebakitze?

II.e. Konparaketak

- Lehen/orain (XVII.m. XX.raino)
- Gizon/andere (XVII.m. XX.raino)
- Aztikeria/herri jakintza (XVII.m. XX.raino)
- Kanpotar/herritar (XVII.m. XX.raino)
- Berriemaile gazte/berriemaile zahar (XX.m.)
- Eskolatuen jakintza/herritarren jakintza (XVII.m. XX.raino)
- Gizon/anderezko (XX. mendean)
- Biologilari/historialari.
- Onespen/gaitzespen (XX. mendean)
- Etnologilariak ikusi ta bizitakoak gaztean/orain ikusten eta bizitzen dituenak.
- Ingurumeneko sendagailu/erositakoa.
- Erabilka ezagun ezerabilia/ezagun erabilia.

II.f. Zehaztapenak

Gauzak artezki ulertuak izan ditezen aipatutako gaien, belarren tekniken izenak, gutxienik hirur hizkuntzetan emango ditugu: euskaraz (zuberera, euskara batua), latinez, gaztelaniaz.

II.g. Transkribapena

Lan hau ez delarik ez euskalki ikerlana, ez literatura, Euskaltzaindiaren grafia jarraikiz idatzi ditut guztiak, nahiz aintziñakoak, nahiz gaurkoak, ahalik eta ikerlana, ohar gehiegi gabe, irakurgarria izan dadin. Gero zubereroazko hiztegiak emango ditugu, zati bakoitzerako.

II.h. Herri-sendagintzaz, jendeen eritzia

- Emakume/gizon
- Gazte/heldu/zahar
- Sendagile diplomadunak
- Herri-sendagileak
- Nekezari/eskulangile/saltzaile, herrixka batzutan.
- Langile/saltzaile/eskolatu, hirixketan.

Zer diote jendeek?

Berek erabiltzen ote dituzte zerbitzu horiek?

Noiz erabiltzen dituzte: ofizialaren ondotik ala aurretik? ofizialak porrot egin ondoren?

Berek praktikatzen ote dute?

Konturatzen al dira medikuntza eztiaren, zaharren berpizteaz, garatzeaz.?

Nola nahi lituzkete ikusi erabilka horiek (akupunktura, hidroterapia, homeopatiaren moduan, Gizarte Segurantzaren dirupean ala aske?)

Ikusi al dute aldakuntzarik, beren etxean, beren herrian, "sendakuntza ezti", ta "herri-sendakuntza horien kasuan?"

II.i. Herri-sendagintzaz, legepeko sendagileen eritzia, onarpena, erabilpena

(galdeketa berezia)

(legez: toleratuak)

(legez: baztertuak, jarraikiak, debekatuak)

(mediku ez diren ikerlarien eritzia?)

(sasi ta eskoladun sendagileen arteko lotura ta harremanak)

II.j. Jakituri horien iturriak

- idatzizkoak
- eskola, eskoletan ikasitakoak
- ikusiaz ikasiak
- entzunez ikasiak
- ikusi ta ez erabiliak.

IKERLANAREN EREMUA**I. BILKETAREN EREMUA****I.A. Administralgoaren aldetik**

Gure bilketa eremua **Zuberoa** da, edo herritarrek, orain, dioten moduan **Ziberoa**. Aipatuko dudana lurralde hau, napar erregeren arduraz Erdi-Haroan eraiki eta antolatu zen eta geroztik, frantsez Iraultzak 1789.an, kondairak sortu bizkonterri egitura hau desegin arte, iraun du. Goi mendietako bazka ta oihanak amankomunean izanki, Frantzia bortxatua izan da, herrien arteko erakunde bat ezagutzera, Ziberoako Sindikata, eta talde horrek benetan gorde ditu, aintziñako herriaren mugak eta foruaren kondarrekin batean, Zuberora (fr. Soule) izena ere.

Frantziako errepublika "bat eta zatitu ezina" ezagutu arte eta horrek bere kulturgiroarentzat garrantzia daukela lau soberanoren eskua ezagutu du, nafar-erregerena, ingeles eta frantses erregerena, eta Biarnoko jaunarena.

Bi zatiketa mota daude Zuberoren eremuan, orokorre-nak mendia (Basabürü) eta zelai-muñoak (Pettiarra) bereizten

ditu, baina artzantza bizimoduagatik hain ziren harremanak herstu..bideak eta ibaiak kontutan harturik, esan baitaitake hirur ibar bereiz detzakegula, nagusiki, Ibaresküina, Ibarezkerra, Peko Ibarra, geroago zehaztuko ditugunak.

Denetara berrogeitahirur Udaletxe edo Herrikoetxe daude, Zuberoako probintzian, eta herrixka gehiago. Hona goi-nafar mugatik hasita zein diren herriak.

I.A.1. Basabürü

(Fr. Haute - Soule; gazt. Alta - Sola) (Ik. mapa) Frantses zatiketak gorde du aintziñako egitura hori "canton" bat (eusk. kantonamendu) bat eginaz. Atarratzeko kantonamendua Basabürüa da. Mendialde honetan 16 udaletxe daude ta 24 herrixka beren parropiekin. Gaurko demografiarengatik, herriak hiruak udaletxe batean biltzen dira, eta berdin zortzi elizarentzat abade bakarra dago.



Basabürüan bi ibar bereizten ditugu Ibaesküina (Alozetik Lakarriraino) Ibaezkerra (Iuritik, Larraïne eta Santa Graziraino). Atarratze da "hiriburua" eta horko medikuntzaren bilgunea, merkatugunea, erosketa lekua, zerga lekua.

Mendialde honen herrixka guztien zerrenda hau da: Aloze, Altzabeheti, Altzai, Arane, Arstüe, Atarratze, Aterei, Barkoixe, Etzebarre, Gamere, Haunze, Iruri, Lakarri, Larraïne, Lexantzü, Ligi, Liginaga, Muntori (edo Beroritze), Onizegaina, Santa Grazi (edo Urdaitz) Xarrikotagaina, Zihiga, Zühar, Zunarreta. Barkoixe Pettiarrekoa da hizkeraz.

Oraitxe berriki gehienean Euskaltzaindiaren grafian herrien izenak eman baitituzte euskaraz beren kaskoin-kiskuinen frantsez itxurapean ez ditut emango (ik. mapa) Sendakuntza aldetik, amategia ospitalea eta klinika Biarno auzoko Oloronen daude.

Herri guzti horiek XIV. mendeko idazkietan agertzen zaizkigu, eta herri batzutan nafar kristauzaleek eraiki elizak eta elizeen oinarriak ikusten dira (Santa Grazi, Arane, Liginaga, Altzabeheti, Lexantzü eta abar). Gero Santiagoko bidexka batean izanki, eta mendizoko izanikan ere Zuberoak goizik, sentorralen Ospitaletxeak ezagutuko ditu. Legearen aldetik, herri zahar bat -Santa Grazi - Elizapeko izango ez Zuberoako foru legepean, baita geroago berdin Larraïne, Sauvelade-ko komentua, Liginagako jaunaren lurretan eraiki herria. Hamazazpigarren mendean denak zuberotarrak izango dira legez, eta foruz.

I.A.2. Pettiarra.

Muno-zelaialde hau frantses administraritzak zatitu egin du, herri gehienak **Mauleko kantonamenduan** sartuz. Herri egitura honetan, 20 zuberotar udaletxe daude, 29 herrixka beren elizekin. Hau da geuk Pettiarra (Peko Ibarra) esaten diogunaren zati nagusia (Fr. Basse Soule; gazt. Baja Sola). Administralgoaren aldetik eta medikuntzarenetik Maule da hiriburua, hortik kanpo ez baita sendaketa antolaketategirik. Berdin Erdi-Haroan herrixka horien guztien izenak aurki litezke idatzita: Ainharbe, Altzürükü, Arrokiaga, Bildoze, Berrogaine, Ezpeize, Garindaiñe, Gotaiñe, Irabarne (edo Irabarren), Larrebile, Larrori, Larüntze, Maule, Mendi, Mendikota, Mintikile, Muskildi, Onizepea, Ospitalepea, Ozaze, Sohoeta, Undüraiñe, Urdiñarbe, Urrüstoi, Xarrikotapea, Zalgize (hogeitabederatzi herrixka)

Donapaleuko kantonamenduan, zazpi udaletxe eta hamalau herrixka beren elizekin zuberotarrak dira, hona herrixkak: Arübe, Berroeta, Domintxaine, Erribarreita, Etxarri, Itorrotz, Jestasü, Lohitzüne, Oihergi, Olaibi, Ozagaiñe, Pagola, Sorapürü, Zilekoa.

Hogeitazazpi udalek eta berrogeitahiru herrixka edo parrochia horiek Pettiarra konpontzen dute, nahiz frantses Administralitzak, Zuberoatik kendu dituen. Elizak, kondaira mugak onartu ditu, eta Zuberoa guztia Baionako elizbarrutian dago, baina Mauleko zuberotar herriak Paueko komertzio ganbarara lotu ziren orduan Donapaleu aldekoak Baionakoari (**1991ean Zuberoa Baionari lotu**).

Medikuntzaren aldetik Maulek ez du jakin bere klinika eta amategia gordetzen. Donapaleu azkoz txikiagoa izanki, biak badauzka. Horregatik Pettiarreko gaurko niniak Donapaleu sortuak dira, eta eri asko hango klinikan sartzen.

I.A.3. Zuberoako herri-hizkuntzak.

Jatorriz eta frantsesa denei inposatua izan arte aspaldidanik hirur hizkera dauzkagu Zuberoan, **gaskoina** (Ozagaine, Erribarreita, Jestasü); gaskoina, bearnes mota, eta zuberera (Muntori), euskararen bi euskalki, **züberera** herri gehienetan, **nafarrera** Etxarri Domintxaine aldeko herrixka batzutan, denetan ez. Maule-n eta inguruan espainol eta portugez jatorrizko jende multzoa badago (Bildozen gehiengo portugesa da). Gaztelania frantsesetik kanpo hizkuntza eza-gunena zen. Gure berriemaile guztiek dena edo zatia euskaraz (zubereraz) eman digute. Mintzaira ofizial bakarrak, latina, erromantzea, eta XIV-XVleraino gaskoina, geroztik frantsesa, izan dira. Duela 10 urteetaraino medikuntzazko praktikari guztiak euskaldunak ziren.

I.B. Lurra ta berezko ontasunak

Eremu osoak, 760. km. egiten ditu gorabehera.

I.B.1. Mendialdea

Karaitz eta lapitzezko pireneotar ardatza Zuberoa eta Nafarroaren artean altxatzen da, mendiek 1800 m; -2000 m. egiten dutelarik (Orimendia, 2018). Kate horren paraleroan Santa Grazi zokoratuz Sortaldetik-sartaldera, Iguntzeko mendiak daude (1440 m.), lur eta arkaitz mota askorekin, eta geologia aldetik hor kapa zaharrenak agertuz. Gero Ibaesküinari bere itxura ematen diolarik zeharka karaitz hutszko mendiak Arbaillakoak daude (1000-1200m.).

Mendi gain horietan kareak eman buztin meharrean pago eta izai basoak badaude, 600-1400 metrotaraino, gero handik goiti larreak, bazkak eta artzainen "olhalte" eta haien egoitza diren "olhak". Arbaillan ordea, ur eskaziak lekuka deserto bilakatzen du mendia baina, lteko oihana badago eta Ahuzki aldean artzain "olaite" onik.

Ibarretan Basabürüko "Ühaitz", basa uretan eta ondoetan lur lanerako egoki diren *e/ge* txiki batzu daude, bestelan lurra belardirako baizik ez da on, eta oihanerako, ere: Ekibegititik (eguzkiruntz) etxalde gehienak eta Itzalaldetik oihanak.

Mendiko urak baliatzen dira, baina ez lurazpiko meatzak, alta burdina badago Larraïne, bauxita, galena, Santa Grazin, kobrea Ligin.

Lurralde euritsuak dira (Gipuzkoa haina), metro bat et'erdiz goiti egiten baitu urtero, halere hegoak tokika, mendialdean zerua garbitzen du eta ez du elurra egoten uzten. Etxe gehienak 800 m. goratasunetik behera daude.

I.B.2. Muño-zelaialdea.

Basabürü eta Pettiarren mugan 800m. gora irixten diren muñoak, "hegiak" badaude, Maidalena San Gregori, eta Be-Nafarroako mugan San Antoni. Gero beheraxeago muñoak 300 metro tara heltzen dira Peko Ibarren bi aldetatik, Maule eta Barkoixen.

Nahiz Barkoixe Basabürüan izan, badü bere ordoki txikia, bere "ürüpea" lur lanerako egokia, Gaztalondo ibar aberatsa. Berdin Maule inguruko herriek beren "elgeak" zabalenak Sohoeta eta Mendikoak izanki, arto lur direnak.

Ühaitz urak industriarako hor ere baliatzen dira, baina ekai aldetik ez dago, sendakuntza urez kanpo, balia litekeen besterik.

I.C. Ekonomia.

Ezin daiteke esan ez dela Zuberoan industriarik izan Be-Nafarroan baino askoz gehiago bai, baina industria hori monoprodukzio edo ekoizpen batekoa izan da aintziña: lehenik espartina eta gero sail berdineko oskia (zapeta) egin da gehien bat Industria horiek aintziñako zuberotar eskulangileen jarraipenak dira, eta langile asko eskatzen dutenak. Zoritxarrez 1959ko krisia gaintitu ondoren eta nagusien artean zerbait batasun eginik ere, Txinako konkurrentziak itozten du Maule 1988an. Larru eta espartatik kanpo, kautxua ere lantzen baldin bada ez da salbapenik hor.

Halaxe duela hogeitaz galduta zen Atarratze, Ligi eta Mauleko oihalgintza "linge basque" delakoa egiten zuena - orain delako euskal-oihala gehien bat Euskal Herriatik kanpo egiten delarik - eta Maule-k bere industriarekin herria desertu bilakatzea frenatu baldin badu, geroa beltz da, eta Atarratzen erabili zen industriaren aurkako jokabideak, herriari 300 bizizale galerazi zion eta menditar gazteria herrian egoteko itzaropena.

Nekazaritzak berriz ez du hainbeste eskuren beharrik, dena mekanizatu baita, eta makinekin aldapatsuegi ziren lurrak eta etxaldeak hustu eta utzi baitira, emigraketa bideak hartuz. Orain, bereziki menditar laboraria, subentziaz bizi da. Goi-mendietako laguntzak urtero 20.000-40.000 libera hartuz etxaldea (400.000-800.000 pta.), gero gauza asko amankomunean edo dohainik eginaraziz (bainuak, gelak, arditegiak) eta azkenik errenta zergarik ez ordainduz, etxaldea txiki ala haundi izanikan ere.

Zerbitzuak berandu agertu dira, herrian, trena hil da, autobus gutxi eta ez Basaburuan garraioak kamioiez karretera txarretan (oraintxe zabalagotzen hasiak). Bankak azaldu dira etxeetan dirua baita oraintxe, erretiroa ordaindu izan gabe nekazari guztiek errenta kobratzen baitute eta gastatzeko ohiturarik ez hartzen. Bankuetan gehienak euskaldunak dira, saletxeetan asko (bereziki Atarratzen) Orainarte medikuntza jendea ere euskalduna zen, baina goiko aldetik (mediku, farmazeutiko) erdaldunak sartzen dira, ez baita gehiago euskararen jakitea derrigorrezko, "denek omen daki-telako frantsesa".

Duela hirurogeitahamar urte Indaretxea eraiki zen Ligin, trenaren ibilarazteko, jarraitzen du Santa Grazi aldetik hobetu da, herri honi elektrizitatea emateko eta Larraino aldetik uhaitzean zeiharka, beste bat egin ekoizpenaren bikuntzeko.

Turismoaren aldetik duela hogeitaz bat urte Zuberoako Sindikatak mendi-herrixka bat eraiki zuen Iratin, orain mozkinemai dena, asko iretsi ondoren (50. bat etxe). Ihizea (usoa) sindikata horren irabazpide nagusia da, lepoan airera tiratzen direnei garesti subastatzen baitzaie. Horiez kanpo herri askotan, baserri hustu batzuek - gobernuaren laguntzarekin-berritu egin dira, "gite rural" edo baserri egoitzak alkilatzekeo turistei, urte guztian, holakoetan maiz ikusten dira "Bi" ta "SS" matrikulak asteburuetan. Elurtegi bakarria dauka Zuberoak Iratiko herrixkan, eta ez neguan ez udazkenean ez da beste atsedean lekurik, ez eta "eguraldia aski sano" izan arren, eritegirik mendietan altxatu. Azkenik **Eroski**-k kontratu bat izenpetu du Zuberoako "baserri-egoitza" federakuntzarekin.

Administratzailean ere, pixkanaka erdiak euskaldun dira, baina asko ofizialtasunari eusteko, frantsesez erantzuten

dizute. Gainera Basabürüan jendetza eta humetza txikituz, halaber zerbitzuak galtzen dira: eskolak itxi egiten, erretoreek zazpi-zortzi parrokiak buru gertatzen batzutan.

Ekonomian saio berri jakingarriak badaude ekoizpen bakarreko industriatik ateratzeko -gehienak abertzale giro batean sortuak - hala nola, **Alkar** metal-etxegintza, **Deia** informatika: ez dira nahikoak langabezia harrigarriaren ordezkatzeko; halatan ere gazteak - lanik gabe izan arren - nahia go dira herrian egon eta askok familiako etxe haundia daukaten ezker ez dute egoitza eta alkilatze arazorik, batzutan ere "oilategi eta baratzeaz" doi jatekoarena biltzen dute.

Ekonomia horrek, eta langabeziak etxeak hustu egiten ditu, eta neurri batean, jubilatuek, erretiratuek erosten dituzte, jendetza geroago eta ohi baino gehiago zahartuz.

Berritzapen nagusien artean, kanpotik etorri zitzaizkigun bi fabrika Wood-Mylne ospetsua, beti zerratu nahian dabilana eta beste bat nekazaritzari oldar eman diona "Les Chaumes" gaztagintza. Halaxe ardiñ salda, artaldea goiti joan da esnetarako, gero kooperatiba moduan **Axuria** taldeak arkumeen salketa hobetzen du; behi hazkuntza nahiko eskatzen da Zuberoan behiari txahal egitea baizik ez baitzaio eskatzen eta hauek Italiara saltzeko.

Herri auzoan bizi dira Ligin nere aiakoak aitaren etxonduan ez da inor ezkondu, Osaba Sengraten etxea hutsik dago, Izeba Maider-enean "langileak" eta etxaldea utzita; inguruko baserri gehienetan ezkongabe zaharrak eta gazteak abio berdiñean. Ligin esaten zidaten hogeitaz urteez hogeitaz hamalau etxe zerratu egin direla, ondoko gabe, eta orain herri hortan hiltzeak jaiotzei buruzagi.

Ligi-n naski haur batez goitiko familiak badaude -erdaldunak noski - euskaldunen artean haur bakoitza badago, etxaldearen ez zatitzeko, modu berrian. Gero Basabürütarrei galdetzen zaienean zergatik ez duten haur gehiago "ez dizūgū aski sos horien hazteko". Bai, segurantzarik gabe, etxean diru gutxirekin, lan guztiak eskuz eginaz, beren amek lau ume edutera ino iristen ziren eta hor denak daudelarik, erosotasunak, berekoitasuna sortzen baita haurrentzat handinahiak, haurren kopurua mugatzen ere, sekulan aintziña familia haunditan ez balitz gizarte-lorpen ederrik gertatu bezala? Aitzakia errez da, baina jadanik Basabürüan kilometroal hamar biztanleez beheiti jaitsirik, ez dira konturatzen, (berentzat ere, ezin bizia adelatzen ari direla, zerbitzuak joango direlako eta jendetza zaharregi izango.)

Egia da mendialdean oso emigraketa gutxi dagoela, urrutira, geroago ta Euskal Herria egotenago da, eta itzultzeak ere ematen dira, gehienik, ordea, Pettiarrean kokatuz Basabürütarra - baina jaiotzak dira garrantzitsuenak, eta bakanenak. Zenbakiek haina sendagileek esango digute zergatik jendetza beheratzen den neurrian, ez den behinere gaur bezainbeste sendatzaile eta sendagile izan.

II. JENDETZA

II.A. Zenbaki hutsak eta ekonomia.

Biztanleak -bizizaleak- aspaldidanik agertu ziren Zuberoan: ibarretan paleolitos garaiko aztarnategiak daude (Altzürükü, Gamere) eta mendietan non nahi neolitos garaiko artzain kulturaren treku-harri, bide, "gatzelu". Gatzelu delakoak ordea, gehienetan, protohistoriakoak dira eta

Zuberoako herri zaharren erditan edo bazterrean (Altzai, Barkoixe, Moidalena, Atarratze, Maule, Santa Grazi), duela lau mila urte bizi leku izanak.

Hamalagarren mendean, zerga zerrendak eta beste idazkiak kontutan harturik Th. Lefebvre- eta besteek egin kalkuluen arauera, 4.000-5.000 bizizale zeuden Zuberoa gutzian; XVI. mendean, 1525.ean, 16.500, gutxi gorabehera; XVII. mendean 20.000 bizizale; XVIII. mendean (1770.an) 25.150. Hor ikusten da, XVII. mendean, artoarekin, artoaren ereitearekin, zer gorakada handia dagoen. Hor ere izurrite handien desagertzea kopuru goratzearen beste kausa bat da.

Hogeita hamar mila bizizaleeren goihenetik, gailluretik XIX-XX. mendean Zuberoa beti jaitsiko da, eskulangintza nasaia industriaren aurrean desagertuko baita, eta emigraketak herria odolhusten baitu. Hakaxe 1850.ean 21.000 jendetara irixten gara, eta gaur ia, sortzeren, jaiotzeren erorialdiarekin, 15.000. Zenbaki txipiagoak agert ditezke eta desberdinak, oraingo Zuberoari buruz, gure probintziaz hitzegitean eta idaztean askok ez baitituzte frantses zatiketaren bi kantonamenduak baizik kontatzen eta geuk beti historiako Zuberoa osoa egiten. 1982, 15.404 biztanle dago eta 1990 ez dakigu zenbat baina ziur askoz gutxiago. (mila bat galdu ditu, 400 portuges joan dira) (INSEE Frantziako zentsua 1982an)

XIX. mendean gauzen zehazteko, esan behar da Pettiarra ez dela jendetzaz asko aldatu: Maule goiti joan da, XIX. mende azkenean ezen XVIII. menderaino bospasei herritan jende gehiago zen Maulen baino. Orain ere Maule inguruko herri gehienek azken hogeitaz urteetan (bakoitzak) berrehun bat biztanle irabazi dute, Maule ez da asko aldatu. Zuberoaren hustutze hori Menditik hasi da eta Basaburua dela kausa; ikus ditzagun zenbaki zehatzak, azken eskualdetxo horrenak:

1950 : 7.075 bizizale
1955 : 5.446 bizizale
1975 : 4.316 bizizale
1982 : 3.837 biztanle (INSEE)

Dakigularik geroztik gertatu dela demografia erorketa handia, ez dugu oraindik Zuberoa honetan ondoa jo, emigraketak gelditurik arren.

II.B. Zenbakiak eta demografia.

Urrengo zentsoak esango digu demografiaren eragina; orain arte kanpo emigraketa (Parise, Bordele, Paue) eta barne emigraketa (Pettiarra, Lapurdira) izan dira hustutzearen kausa nagusiak, nekazaritzatik kanpo oso lan gutxi baitzegoen Basabürüan. Gero eta hau gure begiz ikusi baitugu: duela hamalau urte Santa Grazira kokatzera etorri ginen, anka batez behintzat, eta orduan eskoletan hirur lau haur baziren familia berdinetik, eta herria 590 bizizale, gaur egun ordea 391 gehienbat (1975. eko zenbakiak). Gu honara etorri ezkerro, hauzotegian ezkonberriek, familiak "haur bakoitzak" eman dute, gehienik "bi haur". Santa Grazin, urte batean sortze bat, jaiotza bat dago eta hamar bat hil.

Langileen kopurua (Frantziako I.N.S.E.Eren arauera)

Landunak 1950tik 1982ra %57tik, % 43^{ra} jaitsi dira, alde batetik langabeziarengatik, beste aldetik jendetzaren zaharzteagatik. Gero sektoreka ipinita hona

	1950	1982	1990
I. sektore	% 50	% 29	% 19
II. sektore	% 25	% 36	% 37
III.sektore	% 22	% 35	% 44

Jagoiti Zuberoa ez da nekazari eta artzain herria hegoaldeko turista askok uste duten legean, eta nekazari enpleguak, fabriketakoak baino gehiago jaitsi dira. Basabürüko mendietan ere nekazariak ez dira gehiago gehiengo: % 47.

Naski gehienik galdu duena da aurretik ikusi dugun bezala mendialdeak 9.005etik 3.837ra jaitsiz (azken zenbaki beltzak ez dakizkigularik) Pettiarra edo gure "Betteria" gutti edo asko berdin geratzen da, bere 10-12.000 jendeekin. Artesauak, fabrika langileekin batuz Baionako komertzio ganbarak, % 60 industri langile ematen du.

Biztanleen zahartzea.

Honek gure gaierako ere garrantzi handia du, gazteen kopurua -gorago mugatu urteetan- % 29tik % 24ra jaitsi egin da (Frantzia % 28,7). Gero 65. urtez goitikoak Pettarrean % 38 eta Basaburuan % 20 (Frantziako INSEE jende 1982)

Andereen defizita.

Nabarmenena 20-65 urte artean da 129 gizon 100 ande-reentzat, gero 65.etik goiti alderantziz 75 gizon 100 ande-rentzat. (Frantziako INSEEn kopuruak)

Ohar 1.

Hona zer dion Th. Lefebvre, frantses geografilariak bere liburu ospetsuan "Les Modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales, 281 orr. eta jendetza lurren ontasunekin berdinduz

"Zuberoako bizkonterrian 1520an zergaren ordaintze-ko gai ziren etxeak zortziehun ziren. Zergapean zeuden etxeak bakarrik kontutan hartzen direlarik Zuberoako herri bakoitzaren jende kopurua gutxi gora- kalkula daiteke.

Ohar 2.

Ondotik ohar batean dio, bere kopuruak egiteko etxeak "suak" bostez bidertu dituela, eta aurreko beste ohar batean esan digu zergatik Euskal Herriko bizizaleen zenbakia egiteko hori egiten duen". De leur côté les historiens considèrent le chiffre de 5 habitants par feu comme minimum inattaquable, ainsi M. Bloch dans "la population de la France au XIVème s." *Annales Hist. et Economie*, Paris 1931. Beraz hamaiseigarren mendeko jendetza Zuberoan lau milaren inguruan ziteken, "aberatsak" baizik konda ez bage-netza.

Ohar 3.

Lefebvrek bereizten ditu ibarrak (biztanledun) eta mendiak erdi desertu.

"Uhaitzibarreko ibailurretan, ibarraren erdigunean eta beko aldean, kilometrokal jendetza honetara iristen zen: Idaunze-Mendi 12, Liginaga 22, Jestazü 23, Aloze 46.

"Baina ibar nagusitik urrunduz (alegia, Basabürüan sartuz) erdi desertu ziren herrietara iristen zen, zazpi

herritan hala nola Santa Grazi eta Larrañe, kilometrokal **biztanle bat** zegoen. "Hala ikusten dugu garai haietan, lurlanaren garrantzia, eta mendi herriak artzainen etapa hutsak direla ostatu eta aterbekin (60ren bat bizizale Larrainen XVI. mendean)

Ohar 4.

Th. Lefebvre-k esan digu nola XIV mendea baino lehen ez den zenbakirik eta orduan legen beltzak jendetza oso beheratu duela, 1348. urte inguruan. Baina, jendetzaren goiti joaitea janariarekin loturik dagoela erakusteko "artoa"ren garrantzia azpimarratzen du: "Itzuliera osoa hasten da XVII mendearekin jendetza-zen kurba goiti doa jarraituki eta bereiziki euskal mendien iparraldetik (Gipuzkoa, Bizkaia ta Iparralde), mendikate-aren bi aldapen kontrastea gehituz. Ipar aldapak zuen gehien bat aldaketan irabazi hiru arrazoiengatik. Lehenik artzantza eta lurlantzea beren garapen goihenera iristen baitira, eta bigarrena, bereiziki heltzen baita lehen baino jende gehiagori janari ematea, **artoarean agertzea** eta **garatzea** dela bide.

Ohar 5.

Aurretik esan du Lefebvre-k nola jendeak gaizki jaten zuen artoxehearen (mijo) artean ezin baitzen beste uztarik egin eta artoarean artean bai, kuia, bai ilar, eta babarruna egin zitekelako, eta artoa, ogiarekin edo gariarekin tartekatu ditekkelako. Hortarako Lefebvre L. De Froidour 1673.an basoetako inspektoreak Iparraldean egin inkestaz baliatzen da, H. de Coigny-k Baionako BSLA, aldizkarian 1929 eman zuena. (Th. Lefebvre lib. aip. 204 orr.)

Ohar 6.

Zuberoan Atarrantze eta Maule inguruan abelhazkuntza txerrihazkuntza behitegi txerritegietan egiten hasten da eta Zuberoan holako ikulu asko XVIII. mendekoak dira, hiri txikietako haragi eskaera bati erantzuteko.

(Th. Lefebvre, lib. aip. 212. orr.)

Halere badirudi saltzekorik ez zela egiten ez ardotan ez garitan Zuberoan, bakarrik artoak ematen zuen jendea mantentzeko, ilarrak ere nahikoa eta txerrikitik bizi zen jendea XVIII. menderaino (ik. 1789, Frantziako Batzar Orokorerako idatzi ziren protestak)

Ohar 7.

TH. Lefebvre eta Thillaud medikuaren liburuetatik ateratu ditugu jendetzari buruzko zenbakiak.

Mugikortasuna aztertzen bada, ikusten da ekonomia hauskorreko herrietan jendea joaiten dela, herrian lana izan arren, eta kanpotarrak sartzen direla, egoera txarragoak baitaude nonbait: halaxe etxegintza, esnetegi gaztantezi, berri horietan ere portugesak sartu dira, eta neurri batean ez hainbeste euskaldunak - andereak bai -langabaziaz eta gerozeru beltzaz aspertzen errez baita, Frantziak darion "haurbaikortasuna" entzuten eta ikusten delarik.

Bestalde Pettiarrean jendetza -pitin bat- mantentzen duena, zaharren itzulera edo kanpotar zaharren kokatzea da;

etxegintza berak salatzen du Mauletik iparraldean jendetza horren egotea zeren bakoitzak "bere gustuko" etxea edo txaleta nahi duen tankeran egiten baitu, herrialde hori itxuragabetuz. Gero zaharren etorrerak gizarte karguak haunditzen ditu, zaharetxeak edukitzera behartzen eta abar. Medikuntzaren aldetik ere arazoak daude, zeren zuberotar zaharrak ez baitira oraino ez Ospitaleazale, ez eta medikuzale haundiak, baina bai Parisetik, Bordeletik, eta nork daki nondik datozen erdaldun zaharrak.

Egia da Zuberoa hustuagoa izan dela aintzina, baina gaurko zibilizazioarekin hartu ohitura eta beharruneek azpiegitura bat eskatzen dute eta horrek kilometrokal nahikoa bizizale, eta inguruan nahikoa ekonomia bizia, herria hil-leku haina, bizi-leku izan dadin.

METODOLOGIA IKERBIDEAK

I. BILKETA BIZIA

Lehen liburuan *herri-sendagileen* jakituria bilduko dugu eta hor hiru berriemailerengandik sendaketa hauek bilduko; esku-sendaketa edo magnetismoa, sendabelarrak, larru edo azalminen sendaketa errietoen bidez, eta hezur-zuzentzea.

Bigarren liburuan, *etxe-sendagintzako* errezeta eta teknikak lau berriemailerengandik bilduko ditugu, baina lehen liburuan jadanik *herri-sendagile* batek eman dizkigunak sail hortakoak dira.

2. BILKETA HILA

Hirugarren liburuan, Aintziñako medikuntzaz euskarazko (zubererazko) testuak emango ditugu, testu edo zatiak XVI. gizalditik, XIX.aino. Erdal testu gutti batzu itzuliko ditugu baina euskarazkoek nahikoa eman digute.

Lehen bi liburuen ekaiak biltzeko bost itaunketa edo galdeketa mota erabili ditugu: etxe-sendagintzaz bat, sendabelarrez bigarrena, azalminen sendatzeaz, hirugarrena ezur-zuzentzailearekin laugarrena, mediku eta farmazia gironekin bostgarrena.

C. Berri-emaileak

Hirur sailetan aukeratu dut horien banatzea. Lehen sail batean *Ohitura zaharreko* herri sendagileak eta ikusiko dugu haien praktika eta arrakastak hain zaharrak ote diren; bigarren sailean etxeko jaun, etxekandere, neskatila etxe-sendagintzaz zerbait esateko, baina galderen kopurua hain da haundia ez bait dut estatistika moduan erabil ditekenek emaitzarik batu; hirugarrenik fakultate sendagintzazko gizonak.

C.1. Izenak, bizilekuak, herri sendatzaile motak.

- Petiri AGUERRE, aita, Ezkozen: ezur zuzentzaile baina masaia diplomaduna.
- Joanes INCHAUSPE Undürainé, azalmin sendatzaile fabrika langile.
- Joanes CASENAVE HARIGILE, Santa Grazi, Betharamdarra, Altxaiko erretorea. Sendabelar ezagule, eskü-indarrez sendatzaile, lasaialdi erakasle.

C. 2. Etxe-sendagintza.

- Maddalen AGUER, sortzez CARRICABURU, Ligjarsa.
- Marti DAVANT "Zabalain" Larrebiltarra.

- Eliana HEGUIAPHAL "Kalostraenea" Mauletarsa.
- Joanes CASENAVE, Santa Grazitarra (sendabelarrak)

C. 3 Sendagintza ofiziala.

- Joanes LARREGLE, aita, apotikaria, Altzaiarra.
- Remy ACCOCEBERRY "Arotxen", medikua ligiarra.
- Léonie AGUERGARAY, Yvette ETCHECOPAR, zahar-tzainak.

LAN LEKUAK

Etxea: Ibarburu, Santa Grazi, 64560 Licq-Atherey, Iparralde.

Jakileak:

Ezkoze: A. AGUERRE, danatua,
Maule: L. AGUERGARAY, Zahar-erizaintza arduraduna.
Undüraine: J. INCHAUSPE, larrumin sendatzaile
Altzai: J. CASENAVE, herri-sendagile
Maule: E. HEGUIAPHAL, neskatala
Ligi: R. ACCOCEBERRY, medikua
Atarratze: J. LARREGLE, apotikari.
Ligi: M. CARRICABURU "Dordorrage" etxekandere
Ligi: A. ARTIGAU "Elixagarai"
Urrüstoi: J.P. DAVANT etxekojaun
Ligi: J. CARRICABURU "Dordorrage"

Liburu eta idazkiak:

Baiona: (Hiriko liburutegia)
(Euskal Erakustegikoa)
Parise: (Bibliothèque Nationale)
(Bibliothèque Sainte Geneviève)
Pau: (Hiriko liburutegia)
(Departamenduko artxibotegia)

Unibertsitatetegiak:

Euskal Ikasketen Unibertsitate arteko Departamendua, Baiona

Paueko Unibertsitatean. Faculté des Lettres, Avenue Poplawski, 64000 Pau.

Berriemaile guztiei galdeketak euskaraz egingo dizkiet eta honako beste xehetasunak eskatuko, haien biografiak egiteko.

- Adina
- Lanpide nagusia..besterik.
- Gorabeherak (bidaiak, soldauska, gerra, ezkontza, alarguntze).
- Atzerrian bizitu ote diren?
- Ikasketak non eta zenbateraino?
- Irakurtzeko ohiturak (berezi gure gaiari datxizkionak)
- Inkesta, bilketa egilearekiko adiskidantza. Noiz elkar ezagutu duten? Zer gizarte ta jende harreman dituzten, berriemaileak eta galdetzaileak?
- Beren ofizioa, beren jakituria norekin ikasi duten eta zer pentsatzen duten, zer eritzi daukaten beren sendagintzaren erabileraz.

D. Galdeketen grabaketa

Adinaren arauera ordubetik hirur orduko elkarhizketak egin ditut, beste etnologia ikerlanetan ohi dudana bezala. Testuak makinaz idatz eta berriemailei irakurriarazi dizkiet, nahi dituzten xehetasunak, zuzenketak gaineratzeko, une bateko ahazkortasunaren lana bakartasunaren patxadan, urra dadien eta aberats zezaten bildua; baina, horrek ere bere mugak ditu eta behin irakurtzera eman ondoren, ez da gehiago aldatzerik.. gehigarri ta ohar moduan ez baldin bada.